



## Etxebarriako San Agustin eliza (Elorrio)

San Agustin landa paisajearen kokatzen da, herri guneetatik urrun, Zumelegi errekaaren eskuin ertzeko ibar estu batean.

Esanahi historiko handiko eliza, milurtekoa beharbada, komunitatean bizi diren kalonjeen tenplu eta komentu multzo gisa eginda izatean datza bere interesa neurri batean.

Eraikinaren historia 1053 urteraino iristen da zalantzarik dokumentu baten arabera, zeinek *monasterio Varria* baten fundazioaz hitz egiten baitu. Datu honek pentsa arazten digu bertan beste zaharrago bat izan zela.

XII. gizaldiaren erdialdean tenplu erromaniko bat berreraiki zen, egungo gangaren enjutasun betetzeko material gisa erabilitako bost harlanduk frogatzen duten bezala, teilatuaren azken konponketa egitean agertu direnak.

Baina eliza honek XVI. gizaldiaren lehen erdialdean ezagutu zuen bere goren aldia, oraingo nabe gotiko errenazentista aurreko obra guztiaren partez aldatu zela.

### Eraikina

Kanpo aldetik San Agustinek harearri landu ondo kokatuz moldatzen ditu bere hormak, barruko aldetik, harlanduen itxuran pintatuta gurutze irudiko motiboz apainduta dagoen bitartean.

Oin-plantan honela banatzen ditu bere espazioak: nabe luze bat (azkenaren alde bat goi koru baterako), Itun Berriaren aldean ostikoen artean zabalduak kapera bi, abside angeluzuzena eta buru aldeari erantsitako dorrea. Harrigarriak dira nabe nagusiaren neurriak. Jatorrian laburrago proiektatu bide zen, baina berreraikitze prozesuan zehar gehitu zitzaion azken gorputza.

Arku fajoi zorrotzek bereiztu egiten dituzte tartear, gurutzeria ganga bat sortuz. Lehen hiru tartekoak berdinak dira -sexpartita- eta oinetakoa bestelakoa da -tercelete erakoa-; guztiak medailoi giltzarri polikromatuz apainduak. Arkuak eta nerbioak bermatzen dira giza, animalia edo geometria irudietan tailatutako mentsulen gainean. Planta angeluzuzeneko presbiterioak erdi-puntuko garaipen-arku bat dauka sarbide. Erdi-kainoi gangaz estaltzen da. Ganga Garbineren koroatzea eta aingeru musika joleak errepresentatzen dituzten kalitate gutxi errokoko estiloko fresko batez apainduta dago. Kanpoko aldetik, nabearen tartear bat datoz teilatuaren garaiera hartzen duten ostiko prismatiko mardulekin.

Itun Berriaren aldeko hirugarren horma-atalaren ostikoen artean kapera errenazentista bat zabaltzen da Oinazetako Ama eta Kristo Etzanari opatua. Kapera hau, ontzi-mensuletan bermatzen diren giltzarri apaindutako tercelete gangaz estalita dago.

Oinetatik gertu beste kapera txikiago bat zabaltzen da, bataiatze ontzirako destinatuta. Oratorio honetan zehar hasten da korura daraman eskailera tartea. XVIII. gizaldiko obra barrokoa da, eta zurezko aurreko baten lekua hartzen du. Sapar-arku egiturakoa da eta kalitate oneko forjatzko balaustrada batez defendatzen da.

San Agustinek hiru sarbide zeuzkan; nagusia arku zorrotz bat da, tenpluaren bigarren tartean hegoalderantz zabaldua. Kontrako aldean ojiba bat dago, hesitu berria, aurrekoaren garaikoa, hau da, 1500 ingurukoa. Hirugarrena, oinetara, axiala da. Karpanel motakoa dirudi baina jatorrian erdi-puntuko bide zen. Azken hau errenazimenduaren garaian kokatzen da eta, beraz, kronologia beranduagokoa, XVI. gizaldiaren erdialde ingurukoa.


Dorrea oin-planta karratzuko egitura eder eta trinkoa da, bi gorputzetan banatuta eta kupula oktagonalez amaitua. Bizkaiko arkitektura erlijiosoan tradizio handia duten atariko-dorreekin (Plentzia, Erandio, Urduña...) lotu behar da. Eraikuntzan parte hartu zuen bere garaiko euskal arkitekturaren onenak: Lekuona, Ibero, Lizardi, Zuaznabar, amaitu ere Francisco Jabier de Arizabaletak amaitu zuelarik 1742an.

Tenpluaren perimetro osoa zurezko arkupe batez bilduta agertzen da, estalpea abside inguruan eta hegoaldeko fatxadan bakarrik mantendu duen arren. Kapera bitxi bat ere badauka, tenpluaren garaikoa (XV - XVI), sarbidea parrokiaren atarikoaz babestuta duena. Bere barnean harrizko sarkofago bi gordetzen ditu, non, tradizioaren arabera, tenpluaren fundatzaileak dautzan.

### Altzariak

Aurrealdean plateresko estiloko erretaula bikain bat dago, bere estiloan Bizkaiko onenetakoen barruan kokatu behar dena. Erretaularen lehen bi solairuetako erdiko etxean San Agustinen irudi gotikoa dago, aurreko erretaula batekoa zena.

**Testua:** Iñaki Madariaga.



### Etxebarriako San Agustin eliza

Elorrio. (San Agustin auzoa, Elorriora iritsi baino bi kilometro lehenago).

### Bisitak egiteko ordutegia:

Egunero, 18:00etatik 19:30etara.

### Hurbil dauden beste toki interesgarri batzuk:

(Elorrio)

- Teilategia.
- San Agustin komentua.
- Seroretxea.
- Etxebarria baserria.
- Gurutzeria.